DONOSTIA SUSTAPENAREN BERRAKTIBAZIO EKONOMIKOKO PLANEAN (PREK) SARTZEN DIREN ENPRESA PROIEKTU BERRITZAILEAK SUSTATZEKO ETA HAZTEKO AURKEZTUTAKO MEMORIA TEKNIKOAK AZTERTZEKO ETA EBALUATZEKO ZERBITZU TEKNIKOAK PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ, KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ZUZENTZEKO BETEKIZUNEN BALDINTZEN AGIRIA.

1. ZERBITZUAREN OINARRIZKO BALDINTZAK

Kontratu honen xedea Donostia Sustapenak Berraktibazio Ekonomikoko Planaren barruan halako proiektuak sustatzeko eta haiei laguntzeko programa eta laguntza ezberdinetan parte hartzea eskatu duten Tokiko Enpresa Proiektu Berritzaileen (PREK) Analisia eta Ebaluazioa egiteko Laguntza Teknikoko Zerbitzuak ematea da.

Donostia Sustapenak, berrikuntza eta talentua lantzeko estrategiaren esparruan, I+D+i ekosistemaren eskura jartzen ditu hainbat programa eta laguntza, hurrengorako:

- Langile gaientzat enplegua sortzen eta tokiko talentua garatzen laguntzea.
- Jakintza teknologikoa eta osagai teknologikoko proiektuen sustapenerako eta garapenerako zerbitzu aurreratuak ematea.
- Tokiko proiektu berritzaileak eta estrategikoak azeleratzea.
- Tokiko enpresen lehiakortasun gaitasuna hobetzea berrikuntza, nazioartekotasun eta/edo garapen espezifikoen proiektu estrategikoen bitartez (zerbitzu espezializatuak, teknologia barneratzeak, patente berrien erregistroa, etab.).

Donostia Sustapenak enpresa proiektu berritzaileak bultzatzeko, hazteko eta azeleratzeko ateratako programetan eta laguntzetan parte hartzea eskatuko duten proiektuen memoria teknikoak Ebaluatzeko laguntza teknikoa kontratatu beharko da.

Deialdi hauen esparruan jasotako eskakizunak ebaluatu beharko dira.

1. Donostia INN laguntzak, non hurrengoak sartzen diren:
   •Talentu Berritzaileari Laguntzea, gazte kualifikatuak kontratatzeko.
   •Innplanta laguntza: Inbertsio estrategikoen bitartez posizionatzeko eta hazteko.
   •Bonu Teknologikoaren laguntza eragile desberdinekin: Ceit, Tecnun, Vicomtech, Tecnalia, Biodonostia, CIC Nanogune, CIC Biomagune… transferentzia teknologikoa eta jakintza sustatzeko.

2. Talentua bueltan jasotzeko eta erakartzeko programa: 35 urtetik beherakoak, esperientzia dutenak eta EAEtik kanpo bizi direnak kontratatzeko.

3. Ekin+: proiektu berritzaile eta oinarri teknologikokoak azeleratzeko programa.

4. Ekin+ Osasuna programa: osasun arloko proiektu berritzaile eta oinarri teknologikokoak azeleratzeko programa, IIS Biodonostiarekin elkarlanean.

5. Inkubagailu programa: berritzeko ahalmena duten proiektuen aholkularitza programa.

6. Enpresak sortzeko laguntza, plus berrikuntza: Donostian negozio berritzaile berriak sortzeko.

7. Connecting Talent Egoitzen Programa: talentua eta enpresa proiektu berritzaileak erakartzea sustatzeko.

8. Berrikuntzaren arloan Sustapenak gara ditzakeen beste batzuk.

Gainera, Empresa DonostiaINN Sariaren esparruan zerbitzua eman beharko du enpresa esleipendunak: sendotutako Donostiako enpresak eta gazteak.

Oro har, kontratazio honen xedea den zerbitzuan, enpresa esleipendunak, zerbitzua ematen hastean, hurrengoa egin beharko du:

1- Memoria Teknikoen Analisia eta Ebaluazioa, Berrikusketaz eta

Are zehatzago, eta **fakturazio unitate** gisa hartuta, enpresa esleipendunak arestian aipaturiko programen eta laguntzen deialdira aurkeztutako memoria teknikoen **Analisia eta Ebaluazioa** egin beharko du, egun Donostia Sustapeneko webgunean plazaratuta, kontsultatu ahal izateko, eta behar bezala azalduko dizkionak Donostia Sustapenak enpresa esleipendunari, deialdi bakoitzerako balorazio irizpide zehatzen arabera, eta baita, dagokionean, ebaluatutako eta zuzendutako memoria teknikoen berrikuspena ere.

Enpresa esleipendunak, Sustapenaren memoria teknikoa eskatu eta entregatu ondoren, haren analisia eta ebaluazioa egin beharko du 10 eguneko epean. Epe hori negoziatu ahal izango da, denboran entregatutako memorien kopuruaren arabera, eta laguntza bakoitzaren oinarri arautzaileetan adierazitako ebazteko epeak bete beharko ditu.

Gainera, Memoria Tekniko bakoitzaren motaren eta luzapenaren arabera, kasu bakoitzean, Sustapenak enpresa esleipendunak Memoria bakoitzaren Analisia eta Ebaluazioa egiteko beharko duen gehienezko denbora adieraziko du. Edozein kasutan ere, gehienez 2 ordu izango dira.

Behin ebaluazio hori egina, enpresa esleipendunak **Balorazio txosten bat igorriko du** memoria tekniko bakoitzarentzat, non dagokion balorazio zenbakia sartuko duen, Donostia Sustapenak ekarritako balorazio taulan oinarrituta, programa eta laguntza bakoitzaren oinarriei jarraiki.

Balorazio txosten horretan, gainera, memoria tekniko bakoitzaren inguruko **iritziak eta oharrak** deskribatuko ditu, bai Sustapenerako, ebaluazioaren benetako informazioarekin, bai laguntzak edo programak eskatzen dituzten enpresentzat, zeina gehiago landuko den eta zuzena izan behar duen laguntza edo programaren espedientearen ebazpenean modu formalean

komunikatzeko. Aztertutako eta ebaluatutako memoria teknikoaren laburpen laburra ere hartuko du.

Memoria tekniko guztiak aztertu eta ebaluatu ondoren, eta zerbitzua bukatu ondoren, enpresa esleipendunak **Azken txostena** egin beharko du, non ebaluatutako memoria tekniko guztien laburpena bilduko duen, eta gutxienez hurrengoa bilduko duen: enpresaren izena, aurkeztutako Sustapeneko deialdia, jasotako puntuazioa, proiektuaren deskribapen laburra, proiektuaren izenburua eta zein sektoreri dagokion

Programetara edo laguntzetara aurkeztutako Memoria Teknikoen Analisi eta Ebaluazio zerbitzu hau egitean, azaldu denez, enpresa esleipendunak kontuan izango du gehienez 2 ordu eman behar dituela hura gauzatzen, atzitu nahi den programaren eta laguntzaren arabera eta memoriaren luzapenaren arabera. Sustapenaren zerbitzuaren eskakizunean zehaztuko da zenbat denbora emango zaion memoria bakoitzaren analisiari eta ebaluazioari.

Horren arabera, Aztertu eta Ebaluatzeko aurkeztutako 265 Memoria Tekniko balioetsi dira gehienez eta, ondorioz, programetara edo laguntzetara aurkeztutako Memoria Teknikoen Analisi eta Ebaluazioko Zerbitzua egiteko 530 ordu balioetsi dira.

Bestetik, oinarrietan adierazitako gutxieneko puntuazioa gainditzen ez duten baina puntuazio altua duten memoria teknikoak (oinarri arautzaileetan adierazia), **Berrikusi** beharko dira, aurkezten duten enpresek zuzenduta, eta jasotako dokumentu berriarekin. Zerbitzu hau 30 minutu baino gutxiagoz egin beharko du enpresa esleipendunak Zuzendutako Memoria Tekniko bakoitzeko.

Gehienez Zuzendutako 100 Memoria Tekniko berrikusi beharko liratekeela balioetsi da, beraz, ataza horretarako, gehienez 50 ordu beharko dira.

Memoria egiteko denbora gutxiago erabiltzen bada, edo Zuzendutako Memoriak Berrikusteko zerbitzuak behar ez badira, Aztertzeko, Ebaluatzeko edo Berrikusteko Memorien kopurua handiagoa izatea eska daiteke, beti ere kontuan izanik ezingo dela gainditu aurkeztutako Memoriak Ebaluatzeko eta Zuzendutako Memoriak Berrikusteko gehienezko 580 orduen muga.

Bestetik, kontratatzeko xede den zerbitzua gauzatzeko orduan, Empresa Donostia INN sariaren barruan, enpresa esleipendunak, Sustapenarekin batera, 10-12 enpresako zerrenda bat egin beharko du, 6 sendotuak eta beste 6 sortu berriak, Empresa DonostiaINN Sarien hautagai gisa.

Zerrenda hori adostuta eta egina, enpresa esleipendunak, 15 egun naturaleko epean, haien Analisia eta Ebaluazioa egingo du, DonostiaINN sariaren irizpideei jarraiki, hau da, berrikuntza maila, enpleguan inpaktua, nazioartekoratzea eta eskalabilitatea eta hiriarekiko lotura. Ebaluazio hori Sustapenak enpresa esleipendunari emango dion dokumentazioaren bitartez egingo da, baina beti ere arestian aipaturiko irizpideetan oinarrituta.

Enpresa esleipendunak, Ebaluazioaren ondoren, haren emaitzen Txosten Justifikatiboa igorri beharko du, eta Sustapenari proposatuko dio DonostiaInn: Donostiako enpresa sendoak eta

gazteak Sarientzako hautatutako Enpresen behin betiko hautespena. Aipaturiko txostenak izango duen informazioa ebaluatutako enpresen izena, haien jardueren deskribapena eta balorazio teknikoa Sustapenak emandako irizpideekin izango da

Zerbitzu hau egiteko, Sustapenak gehienez 20 ordu estimatzen ditu, zeinak ezingo diren inola ere ez luzatu.

Oro har, DonostiaINN sarietan izan ezik, programa eta laguntza guztiak deialdi irekiak dira urte osoan zehar eta haietara aurkeztutako Memoria Teknikoen Analisia zein Ebaluazioa Sustapenak eskatuta egiten joango dira, Memoria Tekniko horiek aurkezten dituzten enpresek eskatu ahala.

DonostiaINN Sariaren kasuan, nahiz eta zerbitzua eskatzen duten Analisien, Ebaluazioen eta Berrikuspenen modu berean, puntuala izango da Sustapenak denbora nahikoaz enpresa esleipendunari igorriko dion data zehatzean, eta beharrezkoa den denbora emango dio adierazitakoaren arabera egikaritzeko.

Hortaz, Sustapenak enpresa esleipendunari eskatu ahal izango dizkio azalpenak, edo Analisia eta Ebaluazioak egitea eta/edo doitzea, baita Berrikusketak ere. Kasu horretan, eta salbuespen gisa, enpresa esleipenduna laguntza eskatu duen enpresarekin bildu ahal izango da proiektuaren ebaluazioari buruzko zalantzak argitzeko, beti ere aurretik azaldutako denboran edo berriak Donostia Sustapenarekin adostuta, beharrezkoa balitz.

(Aurretik azaldutakoaren arabera, zerbitzua emateko estimatutako denbora maximoa 600 ordu dira.

1. Administrazioaren kudeaketa eta Zerbitzuaren balorazio orokorra:

Zerbitzua ematen hastean eta haren atal baten gisa, enpresa esleipendunak bilera bat egingo du Zerbitzua ematen hasi aurretik, non, bi alderdiek elkarrizketa egingo duten langileak aurkeztuko dituzten, eta baita haien harremanetarako datuak ere.

Bilera honetan, gainera, zerbitzuari buruzko zalantza oro argituko da eta enpresa esleipendunari zerbitzua behar bezala emateko programei eta laguntzei dagokion informazio oro helaraziko zaio, eta horretarako Sustapenak ezarritako aplikatiboetan (SIFOM) informazio oro sartzeko jarraibideak ere emango zaizkio.

Enpresa esleipendunak kontratazio honen xedearekin lotutako administrazio kudeaketa ataza guztiak hartu beharko ditu bere gain, haren parte gisa eta aurretik deskribatutako fakturazio unitateen barruan.

Hortaz, proiektuekin, aurkeztutako memoria teknikoekin, egindako elkarrizketekin, eta abarrekin lotutako informazio guztiaren erregistroa egin behar da, SIFOM (edo Sustapenak eskura jartzen duen besteren bat).

Horrez gain, bi alderdiek Zerbitzua behar bezala garatzeko beharrezkoak diren Sustapenarekin jarraipen bilerak egin beharko ditu, eta zerbitzuaren balioztatze txosten bat idatzi, non, Zerbitzua bukatutakoan, enpresa esleipendunak, oro har, Emandako Zerbitzua, haren egikaritza, intzidentziak, datu adierazgarrienak eta abar baloratuko dituen, eta baita Donostia Sustapenak, berrikuntza eta talentuaren estrategiaren esparruan, I+D+b ekosistemaren eskura jarritako programa ere, hainbat programa eta laguntza bitartez, maila teknikoan zein kudeaketan hobekuntzen proposamena eduki beharko duen.

Zerbitzuaren balorazio orokorraren txosten hau, gehienez Analisi eta Ebaluazio Zerbitzua egin denetik edo eskatutako azken Memoria Teknikoa berrikusi denetik 30 eguneko epean aurkeztu beharko da, asko jota ebaluatutako azken proiektuaren laguntza teknikoa bukatu denetik hilabete bateko epean. Aurkako kasuan, lotutako azken hilaren laguntza teknikoari dagokion faktura, ez da ordainduko

Bai administrazioaren kudeaketan bai zerbitzuaren balorazio orokorreko txostenean, ulertutzat hartzen dira Sustapenak ordaindu beharreko zenbatekoen barruan, Memorien Analisia eta Ebaluazioa, eta baita aurretik deskribatu diren Zuzendutako Memorien Berrikuspena eta DonostiaInn sarirako Enpresen Hautespena ere, eta enpresa esleipendunak honen atal gisa egin beharko ditu.

Azaldutako guztia gaztelaniaz eta euskaraz egin beharko da.

Beraz, euskaraz jasoko diren memoria teknikoen kasuan, enpresa esleipendunak egin beharko du ebaluazioa eta itzulpenik behar badu, enpresa esleipenduna arduratuko da haren kudeaketaz eta kostuaz.

Hortaz, arestian deskribatutako edozein txosten eskatu ahal izango zaio, EAEko bi hizkuntzetako batean, euskaraz eta gaztelaniaz eta, ondorioz, enpresa esleipendunak egin beharko dituen dokumentu batzuk itzuli behar izanez gero, hari lotutako kostua enpresa esleipendunak ordaindu beharko du.

Beste hizkuntzen kasuan, Donostia Sustapena arduratuko da itzulpenaren kudeaketaz eta kostuaz, enpresa esleipenduna lizitazio fasean hizkuntza horretan ebaluatzeko gai denean izan ezik, azaldutako ebaluazio irizpideei jarraiki.

Donostian, 2021eko irailaren 10ean

Digitalki sinatuta norengandik: MARIA SOLEDAD GARMENDIA BELOQUI - 15968224Z
Data: 2021.09.15 09:20:16 +02'00'

Marisol Garmendia Beloqui
Donostia Sustapena, S.A.-ko Presidenteordea